

Izua ikuskizun, etorkizun ilunean

IZENBURUA: GOSE JOKOAK

Jatorrizko izenburua: *The Hunger Games* Egilea:

Suzanne Collins Itzultzailea: Koro Navarro

Argitaratze-urtea: 2009 Argitaletxea: Alberdania.

INMA ERREA

AITORTU behar dut zientzia-fikzioa ez dela nire literatur generorik kutunena. Baina erantsi behar dut heltzeko moduko erronka iruditu zaidala literatur mota horri dagokionez ene buruari paratua nion langa gainditu, genero horretan barna abiatu eta 12 urtetik gorako gazteei zuzenduta dagoen eta best selleren zerrendetan dabilen liburu honetan murgiltzea (*Gose*

Jokoak 50 astetik gora daramatza *The New York Times*eko gazte-literaturari dagokion zerrendan).

Gose Jokoak nobela Estatu Batuetan azken moda bilakatu diren liburu eta filmen multzokoa da, etorkizun iluna iragartzen duten istorioen saldokoa, alegia. Joera hori gazte-literaturaraino iritsi da, eta erroak egin ditu bertan, gazte-literaturan hain tradizio luzea izan duen bukaera zorionsuaren baliabidea ere nola bait baztertuta.

*Gose Jokoak*ek hainbat oihartzun dakartzkigu, hala literarioak (G. Orwellen 1984 eta, neurri txikiagoan, A. Huxleyren *Brave New World* nahiz R. Bradburyren *Fahrenheit 451*) eta historikoak

(Erromatar Inperioa) nola garai-kideak (komunikabideetan berebiziko indarra hartu duten *Big Brother* tankerako telebista-ikuskizun erraldoiak). Suzanne Collins idazle amerikarrak abilki erabiltzen ditu erreferentzia horiek guztiak, eta batez ere, telebista-esparrukoak, gazteendako liburuak idazten hasi baino lehen telebistako gidoilari gisa hartutako eskarmentua baliatuz.

*The New York Times*eko iruzkin batek (*Scary New World*) dioen bezala, Collinsen idazkuntza ez da bereziki ikusgarria, baina zubi ikusiezin bezain eraginkorra bilakatzen da, egileak asmatu dituen mundura eta pertsonaiengana? eta batez ere, Katniss 16 urteko neska protagonistarengana? bide-

ratzeko irakurleak. Collinsek gertaerei erritmo bizia emanez eta konta-era maitasun-kontuez ziprztinduz egonarazten ditu irakurleak atezuan.

Liburu hau Collins osatzen ari den trilogiaren lehena da (bigarrena, *Catching Fire*, irailaren lehen argitaratu da ingelesez), eta klima-aldaketak eta gerrek sunsitutako AEBen errautsetatik sortutako Pamen estatu tiranikoan kokatzen du kontakizuna. Pamen herrialdea Kapitolioko agintariak gobernatzen dute, eta 12 barrutitan dute banaturik. Barrutietako biztanleak askatasunik gabe eta miseria gorrian bizi dira, Kapitolioko gizarte aurreratuko biztanle apetatsuendako hornigaiak eta kontsumoko produktuak ekoizten.

Urtean behin, *Gose Jokoak* muturreko *reality show*a antolatzen dute agintariak, 12 eta 18 urte bitarteko 24 nerabe ?barruti bakoitzeko neska eta mutil bana? bertan parte hartzera behartuz, elkarrekin lehiatuta elkar hil dezaten: irabazlea baino ez da aterako bizirik jokatik.

Eleberria etorkizunean kokaturik dago, baina egungo arazoak ere ditu hizpide: Pameneko diferentzia sozial eta ekonomikoak eta egungo AEBetan daudenek badute elkarren antza, eta egungo telebistako ikuskizunek erdietsi ahal duten izugarritasuna ere agerian gelditzen da liburuan. Hori guztia garden eta fidelki hauteman dezakete irakurleek Koro Navarrok euskaratutako nobelan.